

HARAN SUBATLANTIKOAK

ARABA

A.5

Bayas ibaija



Bayas ibaija Gorbeia mendiaren gailurrean sortzen da, Araba iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du, probintzia Rivabellosa inguruan utzi arte eta, azkenean, Ebro ibaiain isurtzen ditu urak Miranda de Ebron (Burgos). Ibaiaren arroa gure Autonomia Erkidegoan ondoen kontserbatzen direneta bat da eta, beraz, lehen mailako interes ekologikoa du. Ibaiaren goiko ur-lasterrek Zuiako harana zeharkatzen du,

pagadi, harizti eta larreez inguratutik. Erdiko ur-lasterrean, Kuartangoko harana zeharkatzen du ibilbide bihurriena, oso ondo kontserbatutako haltzadi zabalaren artetik igaroz. Arrain, hegazti-fauna eta urari loturiko ugaztunen ale asko biltzen dira, Techako haizpitarte malkartsuaren bitartez, Arabako mendebaldeko eskualdeekin komunikatzen diren ur eta erribera hauetan.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIAK

- Ibaiaren zatiak, haranaren forma, ibilguaren ezaugarriak.
- Uren kalitatea: goiko ur-lasterren eta beheko ur-lasterren arteko konparaketa.
- Ibaiko ekosistema: urari loturiko biodibertsitatea.
- Ibaiertzeko basoak: haltzadia, landarediak ibaiaren egonkortasunean duen garrantzia.
- Uraren indarraren erabilera: errotak, zentral hidroelektrikoak.
- Ibaiaren egungo erabilerak: kirol-arrantza, arrantza-barrutiak, araudia eta erabilera jasangarria.
- Ekosistemaren gaineko eraginak: ubideratzeak, deforestazioa, ureztapenak, isurketak.
- Kuartangoko harana: historia, ondarea, landa-guneak, despopulazioaren arazoa.